



(\*) Itten: arrastua, pistia

&gt;&gt; INGO XONAU (10)

## ASPALDITXUAN BURUA JASO EZIÑIK



**Jon:** Kaixo, Amaia, zer barri?

**Amaia:** Ondo esan biharko, okerragorik etxakuagu eta! Eta heu, zer moduz?

**J:** Aspalditxuen bajuen!

**A:** Zergatik, ba?

**J:** Aurtengo partian, biharrekuenak, hau da, osasunak, kale egin dostelako, neska! Gaiñezka egittia badakin zer dan? Ba, horixe, gaiñezka egin ñonan fan zan udazkenian eta harrezkero burua jaso eziñik ibilli naun!

**A:** Eztok egixa izango?

**J:** Ba, bai, eta, gaiñera, negu partian lanian hasi orduko Covid madarikatuak heldu xostanan eta jota mankauta itzi ninddunan. Kontaitteko moduan naguenian, pozik!

**A:** Bueno, bueno, bueno, ez egidak holakorik esan! Baiña, orain ja hobeto hago?

**J:** Bueno, esan lleken martixan pizteen hasi eta behin apirilla ezkerro bizimodu normala-edo egitten ibilli naizela.

**A:** Eta udia ondo fan dok?

**J:** Harrokerixa haundi barik, baiña bai, politto! Ahal izan doten eguzki gehixen hartu xonat aurtenguan!

**A:** Eta nundik nora ibilli haiz, ba?

**J:** Ba, etxeko laurok pentsau giñonan astebeteko urteixeria egittia Cadiz aldera, Conilera. Eguzki eta patxada billa genbiltzanan eta horixe egin xonagu: eguzkixa hartu eta patxadan ibilli. Merezi izan xon! Eta hi nundik nora ibilli haiz, ba?

**A:** Martin eta bixok astebete Pirinioetan eta beste bat Menorkan egon gaittuk. Lehenengo mendixan gora eta behera, eta gero egun danian plaia-eskiñan etzindda, eguzki galdatan gora begira. Hobeto ezin!

**J:** Pozten naun, ba, edozeiñek etxakon holako aukerarik eta!

**A:** Neu be bai, hi ondo ikusten hautelako. Sendo jarraitu eta egongo gaittuk! Eta ia, ba, hemendik aurrera eztoskuken holako sustorik emuten!

**J:** Horixe gura nik!



(\*) Itten: arrastua, pistia

&gt;&gt; INGO XONAU (II)

## APOKALIPSIAREN LAU ZALDIZKUAK: GOSIA, GERRIA, HERIOTZIA ETA ESPERANTZIA



**Inma:** Kaixo, Joseba, aspaldiko! Munduan zer barri?

**Joseba:** Munduan zaharrak barri, orain eta betik! Eta latzak, gaiñera!

**I:** Larriketan hasitta ala, Joseba?

**J:** Larriketan esaten don? Barri onik entzuten al xonagu, ba, iñun, apur bat animaitteko?

**I:** Zergatik hago, ba, hain etsitta? Gerriagatik edo?

**J:** Ba, bai, bestiak beste, gerriagatik, baiña ez bakarrik horregatik. **Gerria** don gizakixok sortu dogun kirtenkerixarik haundixena, baiña baxagozan gehixago.

**I:** Esaterako?

**J:** Ba, esaterako, pandemixia: gizakixok munduko biugarittasuna ez zainketiagatik, bueltan etorri xakun ondorixo latz eta bilddurgarrixa.

**I:** Eta baxagok besterik?

**J:** Osasun faltia! Badakin, osasuna galdu ezkeru etxagon zer egiñik! Pandemixiak gaixo mordua eta **heriotza** ugari ekarri xon, eta, horrekin batera, orain arte bizi izandako balixo asko goittik behera etortia, mundua hankaz gora jartia.

**I:** Esplikau heike hobeto zer dan hori?

**J:** Bai, esan gura ñonan bilddurra eta ikaria besterik eztaguen sasue honetan, itxaropen eza, bizitteko gogo faltia, ondo edo gaizki egittiaren artian iñolako alderik ez ikustia, saiaketiaren kulturria galtzeia, hau da, dana igual-igual izatia —zurixa edo baltza parra—, eta beste hamaika holako gure bizitzako eguneroko kontuak dirala.

**I:** Egon hadi-egon hadi, zirrindara hori iraunsteko entrama ona bihar dok eta!

**J:** Eta etxonat danak kontau!

**I:** Oraindiok gehixago?

**J:** Klima-aldaketia be aittaketan xonai, baita lan faltia eta **gosia** be. Hortaz, esandakuak esanda eta ikusittakuak ikusitta, ezton zaila asmaittia zer etorri lleiken...

**I:** Hau dok markia, hau! Eta baxagok esperantzarik?

**J:** **Esperantzia** esaten don? Nik gauza bat bakarrik esango donat: goiazan bide honetatik zuzen-zuzenian zulora goiazan, eta akordau orduko bapeza bihurtu gura ezpadogu, abixaan jarri biharko ditxonagu mundu hobiaren aldeko neurri eta jardun ugarixak, eta holaxe bakarrik, buru onez eta koherentziaz jokatuaz, emungo xaugu bueltia egoera makur honi!

**I:** Hala bedi, Joseba!



(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; PASADIZUA

**'Hiretako bostehun eta neretako beste bostehun!'**

Herriko fabrika bateko bi langilleri, Joxeaundiri eta Balentiñeri, ofiziala bata eta pioia bestia, diar egin ostean egun baten nagusixaren etxeko sukaldia barriztattera fateko. Jabiaren etxia izanda, lana egindakuan propiña on bat jasoteko esperantziarekin egozen, eta poz horrekin ekin otsain obriari. Lana akabotakuan, diar egin otsain señoiriari oneritzixa emun egixen. Señoira etorri, obria ikusi, eta honela esan osten:

— *Lan ederra egin dozue, mutillak. Milla esker!*

Eta besteriko barik agurtu zittuan.

Eskupekuaren zain egozen langillioek, ha entzundakuan alkarrerri begiratu, eta ofizialak langilliarri:

— *Hi, Balentin, hiretako bostehun eta neretako beste bostehun!*

Eta halaxe urten euen etxe hartatik, broma antzian, baxoerdi bat edateko propiñatxua be jaso barik.



Ofiziala eta pioia lanian

## &gt;&gt; ASMAU: '-ETXE' OSAGAIXA DAKOIN BERBAK

Lotu -ETXE osagaixa dakoin berba honeik bakoitza bere esanguriarekin (1):

- |                          |  |
|--------------------------|--|
| 1. Jaztetxe              | a.- Burutik egindda dagueen jentia atenditeteo etxia   |
| 2. Gaztetxe              | b.- Ogixa egiteteo labia dakon etxia   |
| 3. Zoroetxe              | c.- Uraren bittartez argindarra sortzeko makiña dakon etxia                                  |
| 4. Makiñetxe             | d.- Ezkonketan dan bikotiak hartzen dauen etxia  |
| 5. Txorietxe             | e.- Gaztiak gobernaitten dauein etxia, euren gustuko ekintzak antolaiteteo                   |
| 6. Artetxe               | f.- Hutsik dagueen etxia   |
| 7. Saletxe               | g.- Abadia bizi dan etxia  |
| 8. Ogietxe               | h.- Ardixak gordeteteo etxia. Artegixa. Leku batzuetan harrizko eskortia                     |
| 9. Farretxe / Paterretxe | i.- Ardixendako, negurako, bedar igarra gordeteteo ebalten dan etxia edo itxabolia. Artegixa |
| 10. Ezkontetxe           | j.- Baserrittarrak kalera etorrittakuan erropia aldaketako eukitten euen etxia               |



(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; KONTU KONTARI

## 'Gerriak urten dau!'

Mutiko kuadrillia ba ei ebillen plazan jolasian gustura, iñungo ardura barik, neska-mutikuak bakarrik dakixein moduan, eta hartan ebiltzela hara nun konturatu ziran ingurutik pasaitten zan jente dana estu eta larri xoiala, agopeian zerbait esanaz. Mutikuak erne, zer pasaitten ete zan jakin guran...

Berbalotsari jaramon egiñaz, gerriak urten eben zurrumurrua entzun euen:

'Afrikan gerriak urten dau; Afrikan gerriak urtenik izan bihar dau...'

Ez euen oso ondo entenditten haren esanguria, baiña zeozer larrixa izan bihar zala pentsau euen. Jolasok itzi alde batera, eta... danak antxintxika etxera aitta-amen ondora!

Handik hiru egunera herrixan zan gerria!



Txorromorropikutaioketan jolasian

## &gt;&gt; ASMAU: '-ETXE' OSAGAIXA DAKOIN BERBAK

Lotu -ETXE osagaixa dakoin berba honeik bakoitza bere esanguriarekin (2):

- |   |   |
|---|---|
| 1. Abadetxe / Erretore-etxe<br>Apaizetxe / Farretxe | a.- Kiputzak edo harein jatorrikuak bizi diran etxia  |
| 2. Dola(r)etxe                                      | b.- Kale Zaharreko etxe baten izena. Bertakoen ezizena.   |
| 3. Kipuetxe   | c.- Maisua bizi dan etxia.  |
| 4. Eskolaetxe                                       | d.- Sagarrak prentsaitteko dolaria dakon etxia. Baserri izena.  |
| 5. Indarretxe                                       | e.- Monjak bizi diran etxia. Monjen konbentua.  |
| 6. Moja-etxe  | f.- Gogo-jardunak egitteko tokixa eta baliabidiak eskeinketan dittuen etxia.  |
| 7. Poparretxe                                       | g.- Eskolia dan etxia.  |
| 8. Maisuetxe  | h.- Abadia bizi dan etxia.  |
| 9. Gogarte-etxe                                     | i.- Elektrizidade inddarra sortzen dauen fabrikia; Olatekua, esaterako.   |
| 10. Eperretxe                                       | j.- XIX. gizaldixan, Murgiko Arretxe baserritik kalera etorritako Pope izeneko gizona bizi izan zan etxia eta, ondoren, haren famelixa-izena. |

- Kontuz! Kondiaren etxia, kondiarena da [kondiana]; dukiaren etxia, dukiarena [dukiana]; eta alkatiaren etxia, alkatiarena [alkatiana]!

- Esaeria: 'Diru-etxiak, lapur-etxiak'



(\*) Itten: arrastua, pistia

&gt;&gt; KONTU KONTARI

## BEGIXA BEGI TRUK



Gudari talde bat frentian

Gaurko istorixia ezta atzo goizekua, ez horixe, baiña ezta hain aspaldikua be! Azkenengo gerrateko pasadizo bat da, zeinian bi oñatiar gazteren ibillerak aittatu eta bixetako baten etxian pasautakuak geure herrixari zela eragin otsan kontauko dogun.

Sarrittan entzun dogun legez, Espaiñiako gerriak urten ebenian, gure herrixan, beste leku askotan letxe, bi bando sortu ziran; alde batetik, errepublikanuak (milizianuak) edo gorrixak izenekuak, abertzale edo nazionalistekin batera altxamenduaren kontra egin eueiñak; eta beste aldetik, berriz, karlistak, falangistak, erreketiak ... altxamenduarekin bat egin eueiñak. Bizkarra emunda bizi izandako bi banduen barri izango dozue aurretik be, ezta?

Ba, gure protagonistak Oñatiko bi gazte ziran, bata araoztarra eta bestia aurrekomenditarra, nazionalakin batera, hau da, gerra-irabazliakin, soldadu egozenak Huescako frentian. Egoera hartan egunak aguro barik, luze eta nekez faten xaten, eta asko akordaitten ziran euren herri eta etxiakin. Batek esaten ei otsan bestiari, *'gure etxian orain sagardaua egitten ibilliko dittuk'*, eta bestiak, berriz: *'billots denporia laster hasiko dok eta, honezkeru, gurian billotsen bat jaixorik izango dok'*. Baiña frentian egozen eta euren burua ez euen bape be seguru ikusten, betik billurrak aidian, *'hemen garbittuko gaittuk'* sarri botaten ei eben aurrekomendittarrak. Ametsak be baekuain, jakiña! Bateko, gerria akabotakuan lehengo bizimodura bueltau ahal izango zirala; besteko, herrixan geratutako nobixakin ezkonduko zirala, eta holaxe. Aurrekomendittarrak esaten ei eben: *'Hemetik bizirik urteten badot, Zumarragan taxisa jarriko xuat'*. Baiña haren amets guztiak pikutara fan ziran, tiro batek jo eta bertan garbittu euen eta.

Hori pasau zanian, araoztarrak, pena haundixagaz, lagun horren gauza danak jaso —kartak, erlojua, medaillia, identifikaziñoko plakia eta geratu xakon beste hondar pittñak— eta horreik danak hartuta, etxera etorritakuan, haren baserrixan entregauko zittuala erabagi eben. Hala, hango frentia itxi eta herrira bueltaitteko aukeria izan ebenian, lehenengo lana hilddako lagunaren etxera fan eta haren gauza danak entregaittia izan zan. Halaxe, ba, nobixiari kartak entregau eta gurasuai erlojua, medaillia eta plakia emun osten.



Armada erregularreko soldaduak desfilaitten

Baiña gerra danetan modu askotako gauzak pasaitten dira, eta, pertsonak be, egoeria zelakua, jokaeria halakua izaten daue; eta hildako mutillaren etxian be holako zerbait pasau zan. Gerra hasieran etxe horretan *'gorrixak'* egon zirala-eta, beste bandokuak, nazionalak esan gura dogu, etorri eta nagusitu ziranian, etxeko zer guztiak errekisau eta ziharo hustu ondoren, etxe ona eta opatsua zana txori-etxe itzi euen.

Orduan, etxe hartako beste seme batek hori ikusi ebenian, bere etxia zer izan zan eta zela itzi euen, desesperaziñuak jota eta amorruren amorruez dana bertan behera jare eta falangian sartzea erabagi eben, hau da, eskumaldeko muturreko erakundian. Eta, gorrotuak hartuta, hala fan ei zan gerrara bere etxian egon ziran *'gorri danak akabaitteko asmuagaz'*. Gerran ebillela, koronel bateri kontau otsan zer pasau zan bere etxian, gorrixak egon zirala-eta, nazionalak etxe dana hustu egin eueilla, eta abar. Koronel horren begikua zan, itxuria, gure mutilla, eta harek hori entzun eta denpora gutxira hara nun presentau zan Oñatin eta bando hau egin:

***'Bost egunian, Aurrekomendixan hustu zan baserrixa, berriz be bihar dan moduan hornittu ezian, erremintta, labrantzaako tresnerixa, ganadu, janari eta abarrekin, jentia afusilaitten hasiko gara'.***

Mehatxu latzaren ondoren, hango hanka jotia! Di-dau batian batu ziran eskatutako guztiak: zidarrezko txanpon, burdi, ara, alper, iri, asto, behi, baba, arto eta garixok; eta, diruok eta hornigaixok baserri horretara itzulitta, etxe hori berriz be lehengo izanera bueltau zan. Kendu osteiñak, baiña, oraindiok ondo akordaitten ei dira zer kendu ostein eta zela bizi izan bihar izan ziran gerraoste luzian.

Horra hor, ba, usarixo zaharreko *'odolostiak ordaiñetan'*, edo, *'begixa begi truk'*; zoritzarrez, sarri askotan ikusten dan jokabidia!

**Berbategixa:**

Ara: hogeita lau hortzeko nekazaritza-tresna zapala

Alperra: zokorrak hausteko ebalten zan nekazaritza-tresnia

 **ZURICH**  
M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela  
Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**  
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...  
DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA  
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO  
OLAKUA 12 0 4 ez. - 20560 ONATI - GIPUZKOA  
695 78 91 04 - 943 04 47 77





(\*) Itten: arrastua, pista

&gt;&gt; INGO XONAU ( 12)

## C2 maillan, barriketarik ez!



Euskaltegiko ikasle taldea

**Ainhoa:** Zer moduz, mutillak, zela doiazue kursua?

**Iñigo:** Hemen gabiltzan ttirri-ttarra!

**Unai:** Ondo, baiña oraindiok hemen asko xagon ikusteko!

**Xabier:** Ezertarako asti barik, neska! Asti gehituago izan ezker, trankil samar eruango giñuken kursua, baiña gure martxan, nekez! Eta heu, zer moduz?

**Ainhoa:** Neu be bape asti barik ñabik: etxia, lana, masterra... Badakik, egunak hogeita lau ordu bakarrik xakok, eta danera ezkaittuk aillegaitten.

**Xabier:** Horixe don, ba! Zazpi milla gauza esku artian, eta danera ezin aillegau. Hau don gaitza hau! Baiña pregunta bat egin bihar dotsuet: badakozue asmorik esamiñera presentaitteko?

**Iñigo:** Hemen gagozen ezker, duda barik!

**Unai:** Izango etxonagu, ba! Zertan gabiltzan, bestela?

**Ainhoa:** Ba, ni nahikua berde ñagok eta uste xuat enaizela presentauko.

**Xabier:** Presentau hadi, neska, zer galdurik eztakon eta!

**Ainhoa:** Lehen be esan notsuen nere asmua eztala titulua etaratia, euskeria zuztar-zuztarretik ikastia baiño. Orduan, etxuat gura, esamiña dala eta eztala, estuketan ibiltekerik.

**Xabier:** Orduan, zer egin bihar don?

**Ainhoa:** Eguna aillegautakuan ikusiko xuat, baiña arte-artian trankil bizi gura xuat.

**Xabier:** Ondo xagon! Dana dala, danok be gogor egin biharko xonagu, aprobauko badogu.

**Unai:** Halaxe dok, mailla honetan etxagok barriketarik, bistan xagok!

**Iñigo eta Xabier:** Eziña, ekiñaz egiña!

**Ainhoa:** Ekin, ba, gogor!

**Maisua:** Ainhoa, ez pentsau bestiak baiño gutxiago zarienik, eta presentau zatez!

**Ainhoa:** Bai maillia emuten badot, bestela ez!



(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; EUSKERAZ EGOGI

## Deklinabidia (I)

**-IA** amaieria dakoin berba guztiak eztaue 'X' epentetikua hartzen berbia mugatutakuan, adibidez: *arotzerixak* bai, eta *farmaziak* ez.

*Edozein arotzerixa (m.gg); Kale Zaharreko arotzerixia (m.s); Oñatiko arotzerixak (m.p)*

*Edozein farmazia (m.gg); Kale Zaharreko farmazia (m.s); Oñatiko farmaziak (m.p)*

Salbuespenak badagoz be, normalian **-iarekin** akabotako berbia erderaz diptongua<sup>1</sup> bada, Oñatin be hala egingo dogu, hau da, **-ia** esango dogu. Adb.: *grazia, industria, inportantzia, kolonia, potentzia, sustantzia ...*

Eta, berriz, erderaz hiatua<sup>2</sup> bada, **-ia> -ixa + a > -ixia** esango dogu Adb.: *armerixia, ingenirixia, karnazerixia, loterixia ...*

Horren barri ez izatiak horrelako akatsak sortu eragitten ditu: \*farmazixian, \*erlojerixian...

	Mugagabian	Mugatu singularrian	Mugatu pluralian
<b>Zer</b>	Arotzerixa Farmazia	ArotzerixIA FarmaziA	ArotzerixAK FarmaziAK
<b>Nun</b>	ArotzerixaTAN FarmaziaTAN	ArotzerixaN FarmaziaN	ArotzerixETAN FarmaziETAN

Nun erosi dozu eskopetia? Armerixa**N**

Nun egongo ete da arotza? Arotzerixa**N**

Nun erosiko dot perfumia? Drogerixa**N**

Nun konponduko dotsue erlojua? Erlojerixa**N**

Nun egoten dira barautsak? Ferreterixa**N**

Nun erosi bihar dozu frutia? Fruterixa**N**

Nun ikusi dozu ulixa? Fotografixa**N**

Nun etarako doskue txokolatua bolauarekin? Kafeterixa**N**

Nun saltzen dittue holako txarradak? Karnazerixa**N**

Nun erosi dozu kutxillua? Kinkillerixa**N** (kinkilleruenian)

Nun kurtitten daue narrua? Kurtiderixa**N**

Nun bazkaldu dozue? Hospederixa**N**

Nun garbittu dozu erropia? Labanderixa**N**

Nun enkargau dozu karapaixua? Pananderixa**N**

Nun saltzen dittue pastelak? Pastelerixa**N**

Nun da ama? Pelukerixa**N**

Nun da aitta? Peskaderixa**N**

Nun saldu dotsue hirugixarra? Txarkuterixa**N**

Nun eukitten daue kakaua? Txokolaterixa**N**

Nun erosiko dittuzu zapatak? Zapaterixa**N**

**Baiña:**

Horrek badako ala eztako grazia**RIK**? Bai, badako nehikua grazia!

Horrek badako edo eztako inportantzia**RIK**? Zenbateko inportantzia emuten xakon!

<sup>1</sup> Silaba batian agoskaiten diran bi bokal

<sup>2</sup> Alkarren onduan dagozen bi bokal silaba desbardiñetan ahoskaitia





(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; EUSKERAZ EGOGI

## Deklinabidia (II)

Izen propiuen deklinaziñua dala-eta, hamaika buruhauste eta akats izaten dira; batez be, izen propiua edo arrunta dan ez bereiztiagatik, eta berba akaberako -a berbiarena berarena edo artikulua dan ez jakittiagatik. Ikusi degigun horrelako zenbait kasu:

Herriko	Zer	Nun	Nungo
<b>auzua</b>	Murgixa	Murgix <b>AN</b>	Murgi <b>KO</b>
<b>kale-auzua</b>	Auzabarri	Auzabarri <b>N</b>	Auzabarri <b>KO</b>
<b>kalia</b>	Kalegoiena	Kalegoiena <b>N</b>	Kalegoiena <b>KO</b>
<b>kalia</b>	Kale Barrixa	Kale Barrix <b>AN</b>	Kale Barri <b>KO</b>
<b>kalia</b>	Kale Zaharra	Kale Zaharri <b>AN</b>	Kale Zaharre <b>KO</b>
<b>kalia</b>	Lekunbarri	Lekunbarri <b>N</b>	Lekunbarri <b>KO</b>
<b>kalia</b>	Mendiko kalia	Mendiko kali <b>AN</b>	Mendiko kale <b>KO</b>
<b>kalia</b>	Patrue kalia	Patrue kali <b>AN</b>	Patrue kale <b>KO</b>
<b>kalia</b>	San Juan kalia	San Juan kali <b>AN</b>	San Juan kale <b>KO</b>
<b>baserrixa</b>	Antzuelasbeitia	Antzuelasbeiti <b>AN</b>	Antzuelasbeiti <b>KO</b>
<b>baserrixa</b>	Antzuelasgoitia	Antzuelasgoiti <b>AN</b>	Antzuelasgoiti <b>KO</b>
<b>kiroldegixa</b>	Zubikoa	Zubikoa <b>N</b>	Zubikoa <b>KO</b>
<b>mendixa</b>	Urbixa	Urbixa <b>N</b>	Urbixa <b>KO</b>
<b>etxia</b>	Antixena	Antixeni <b>AN</b>	Antixene <b>KO</b>
<b>fabrikia</b>	Loiola txokolaterixia	Loiola txokolaterixa <b>N</b>	Loiola txokolaterixa <b>KO</b>
<b>ostatua</b>	Hospederixia	Hospederixa <b>N</b>	Hospederixa <b>KO</b>
<b>lehengo dendia</b>	Juanitosiana	Juanitosiani <b>AN</b>	Juanitosiane <b>KO</b>
<b>eskolia</b>	Txantxiku Ikastolia	Txantxiku Ikastola <b>N</b>	Txantxiku Ikastola <b>KO</b>
<b>Euskal Herriko</b>	Bilboko Alondegia	Bilboko Alondegi <b>AN</b>	Bilboko Alondegi <b>KO</b>
<b>baillara, museo,</b>	Armerixa Eskolia	Armerixa Eskola <b>N</b>	Armerixa Eskola <b>KO</b>
<b>eskola,</b>	Astelena	Astelena <b>N</b>	Astelena <b>KO</b>
<b>kultura-zentro,</b>	Debagoiena	Debagoieni <b>AN</b>	Debagoiene <b>KO</b>
<b>pelotaleku,</b>	Guggenheim (museua)	Guggenheime <b>N</b>	Guggenheime <b>KO</b>
<b>futbol-zelai,</b>	Ipurua	Ipurua <b>N</b>	Ipurua <b>KO</b>
<b>kirol-talde eta</b>	Kursaal (jauregixa)	Kursaale <b>N</b>	Kursaale <b>KO</b>
<b>abarretakuak</b>	Tabakalera (tabako-fabrikia)	Tabakalera <b>N</b>	Tabakalera <b>KO</b>
	Ogeta	Ogeta <b>N</b>	Ogeta <b>KO</b>
	Osasuna	Osasuna <b>N</b>	Osasuna <b>KO</b>

**Agoskeria:**

Bustidurak (TT): Antzuelasbeitti, Antzuelasgoitti, Antzuelasbeitti**N**, Antzuelasgoitti**N**, Antzuelasbeitti**KO**, Antzuelasgoitti**KO**.

X (ixa) epentetikua: Alondegix**AN**, Murgix**AN**, Debagoixeni**AN**, Kale Barrix**AN**, Urbix**AN**.

Establezimendua (izen propiua). Txokolateixia, Txokolateixan, Txokolateixako

Beste batzuk: Artzain / Ostalaritza eskolia, Garaikoetxea kafeterixia, Gartzia pastelerixia, Plazaola fotografixa-dendia

Kanpokuak: Saizar sagardotegixa; Mokoroa txakolindegixa; ertzain etxia edo komisarixia; Barrendiola urtegixa,...



(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; EUSKERAZ EGOGI

## Deklinabidia (III)

Leku-izen propixuen **NUNGO** eta **NUNDIK** kasuen deklinaziñua:

Euskera baturako onartutako arauak esaten doskue 'n', 'l', 's', 'z', 'tz' edo 'r' letrakin akabotako leku-izen propixuen deklinaziñua bi eratara egin leikiela: Irungo/Iruneko; Madrildik/Madriletik; Paristik/Parisetik; Gasteizko/Gasteizeko; Zarauzko/Zarautzeko, Eibarko/Eibarreko eta abar.

Gurera etorritta, esan bihar dogu **NUNGO** kasuan 'n'-z akabotako berbetan **-GO** egitten dogula gehixenetan. Ikusi degigun etsenplu batzuk:

*Altzingo Jose Luis, Aizgaingo/Aizgaiñeko ur-deposittua, Irabango famelixia, San Juango eta San Juliango ermittak, San Martingo poligonua, Upaingo Juanito, Urtiagaingo/Urtiagaiñeko erretegixa...*

Eta 'l'-z akabotakuakin bardin:

*Ertzilgo ama, Irazabalgo aitta, Milpiribilgo/Pinpilgo tontorra, Urubilgo famelixia...*

**NUNDIK** kasuan, berriz, 'n'-z eta 'l'-z akabotako berbetan, **-DIK** akaberia oso normala da, nahiz eta **-eTIK** be egin. Eta horrekin batera aittatu bihar dogu, Oñatiko euskera zaharrian 'nundik' eta 'nundi' formak ebalirala, Candido izaguirreren edo Graziano Anduagaren testuak irakurritta ikusi leiken moduan.

- *Duruandik, Erretxindik/Erretxiñetik, (Okomardia) Okunbardindik/Okunbardiñetik...*
- *Ertzildik, Irazabaldik/Irazabaletik, San Martindik behera, Urubildik gora, Zelaizabaldik/Zelaizabaletik...*
- *Batzuk aúrreti tta bestiak ondorian; haméndi apárte; Kanpanzardi Oñatira ibillaldixa dago; nundi nora habil?; urriñeti etorri dira ...*

Eta hemendik kanpoko leku-izenakin bardin jokaketan dogu:

*Andoaingo Udala, Arlabango Ama Birjiñia, Ataungo On Jose Migel Barandiaran, Azkaingo elizia, Baliarraingo amorraiñak, Beasaingo Jose Antonio, Irungo mugia, Iturengo arotza, Urdaingo abade Jose M<sup>a</sup> Satrustegi, Brasilgo aratiztixak, Guayaquilgo portua, Portugalgo fadua, ...*

Hona hemen 'r'-z, eta 'tz'-z akabotako beste berba batzuen adibidiak:

*Angiozargo/Angiozarreko itsua, Aralargo itxabolak, Arbelargo Domingo, Koizkargo etxe azpixa, Araozko / Araozgo saloia; Akaizgo eta Buetraizgo tontorrak; Arrikruzgo aldatsa, Landarraizgo / Landarraitzeko puntia...*

	NUNGUA	NUNDIK / NUNDI
<b>-N</b>	Duruangua	Duruandik / Duruanetik
	Erretxingua	Erretxindik / Erretxiñetik
	San Martingua	San Martindik / San Martiñetik
<b>-L</b>	Ertzilgua	Ertzildik / Ertzilletik
	Irazabalgua	Irazabaldik / Irazabaletik
	Zelaizabalgua	Zelaizabaldik / Zelaizabaletik
<b>-R</b>	Altzibargua	Altzibardik / Altzibarretik
	(E)iziargua	(E)iziardik / (E)iziartik / (E)iziarretik
	Koizkargua / Koizkarrekua	Koizkardik / Koizkarretik
<b>-S</b>	Antzuelasgua / Antzuelaskua	Antzuelasdik / Antzuelastik
	Idigoras: Iruazgua / Iruazkua	Idigoras: Iruazdik / Iruaztik / Iruatzetik
	Parisgua	Parisdik / Paristik / Parisetik
<b>-(T)z</b>	Araozkua / Araozgua	Araozdik / Araoztik / Araotzetik
	Arrikruzkua / Arrikruzgua	Arrikruzdik / Arrikruztik / Arrikruztetik
	Umerezkua / Umerezgua	Umerezdik / Umereztik / Umerezetik

**Jentilizioak:**

N-z akabotakuak:

andoaindarra, ataundarra, azkaindarra, beasaindarra, gerendaindarra, irundarra, lezaundarra, urdiaindarra...

L-z akabotakuak:

arakildarra, brasildarra, errezildarra, madrildarra, portugaldarra, usurbildarra...

S-z, TZ-z eta Z-z akabotakuak:

antzuelastarra, araoztarra, umereztarra, urduliztarra,...



(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; EUSKERAZ EGOGI

## Deklinabidia (IV)

## ZEIÑEGAZ / NOGAZ, ZEREGAZ

<b>Soziatibua</b>	norekin	zeiñekin	zerekin
	nogaz	zeiñegaz	zeregaz

Nogaz kasuko atzizkixen ebalera-eremua kontuan hartu bihar da. Bizkai mendebaldian *-(e)gaz*, *-agaz* eta *-akaz* erregulartasunez ebalten dira. Halanda guztiz, Bizkai erdi eta ekialdian, pluralian, *-akin* ebalten da berbaz. Deba-Leintz ibarretan, gaiñera, mugagabian eta singularrian be *-(r)ekin* gero eta zabalago dabil.

Oñatin **-KIN** eta **-GAZ** dira soziatiboko kasu-markak. **-GAZ** mugatu singularrian eta mugabagian batez be: *amagaz*, *umiagaz*, *bi umegaz*, *nehikua lanegaz*... Pluralerako be **-AGAZ** markia ebalten dogu, baiña ez auzo danetan (Araotzen, adibidez, ez), eta gaztien artian be ez. Eta testuinguruak argiketan dosku singularra edo plurala dan. Haren lekuan herritar gehixenak **-AKIN** markia dabixe:

*Lagun**AKIN** etorri naiz (lagun asko).*

*Alabi**AGAZ** etorri da (batekin)*

*Alaba**GAZ** edo alaba**AKIN** etorri da (batzuekin)*

Dana dala, XIX. gizaldixan Oñatiko parrokiako abade Manuel Umerez Goribargoitiak idatzi zittuen bi liburuetan, korriente ebali eben **-KAZ** markia plurala adierazteko. Esaterako:

*Umiakaz. Bere neguakaz eta udaakaz. Ahizpak ahizpakaz. Barriketakaz. Mesede oneicaz. Naibaguetasun orreicaz...*

Hortaz:

Mugabilia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
<b>-(e)GAZ</b> <b>-(r)ekin</b>	<b>-AGAZ</b> <b>-arekin</b>	<b>-*AKAZ/ AGAZ/-AKIN</b>
Neskagaz Gizonegaz	Neskiagaz (a+a=-ia) Gizonagaz	*Neskakaz / Neskagaz / Neskaakin *Gizonakaz/Gizonagaz /Gizonakin
Neskarekin Gizonekin	Neskiarekin (a+a=-ia) Gizonarekin	*=- Oñatin gaur egunian <i>akaz</i> pluralgillia ezta entzuten

**Goguan hartu bihar da bokal arteko -g letria ezta entzuten** eta horrek sarritan Zerez/Nortaz kasuarekin nahasketia sortu leikela.

Egixa esan, *Nogaz* eta *Zerez* kasuak nahastu edo bardinddu egitten dira askotan. Euskaltzaindiaren Gramatika batzordiarene iritziz be, batzuetan *-(e)gaz* eta *-(e)z* parekotzat hartu leike; bixak dira zuzenak eta onargarriak. Gaiñera, oso ugarixa da *-akin* atzizki plurala balixo instrumentalaz. Izan be, kasu instrumentaleko *-ez* ezta ezaguna Euskal Herriko erdi eta mendebaldian (Oñatin be ez). Halaxe, ba, *-z*, *-az* eta *-akin* atzizkixen bizikidetzia ondoko eskeman ikusi leike:

	Mugabilia	Mug. sg.	Mug. pl.
	-Z	-AZ	-*AKAZ/ AGAZ/-AKIN
<b>Esku Oin Begi</b>	<i>Eskuz egin Oiñez etorri Begiz jo</i>	<i>Eskuaz egin Oiñaz jo Eskumako begixaz ikusi</i>	<i>Eskuagaz edo eskuakin egin Oiñagaz edo oiñakin jo Begixagaz edo begixakin kiñua egin</i>  *= Oñatin gaur egunian -akaz pluralgillia ezta entzuten

**Zerez** egindda dago ogi hau? Urunez, gatzez, hazkarriz eta urez bakarrik, eta azkenian, labian sartu aurretik koloria emuteko, arrautza gorringoz igurtzita.

### ZEIÑEGAZ / NOGAZ, ZEREGAZ

Mugatu singularrian

Mugabagian

<i>Nere lanAGAZ gustura nauk/n</i>	<i>Baxabik/n hori nehikua laneGAZ</i>
<i>BastoiAGAZ jo eben buruan</i>	<i>Ikusitta gagoz gizon hori bi bastueGAZ ibiltten.</i>
<i>AstuAGAZ fan dok/n</i>	<i>Ze astoGAZ fan dok/n?</i>
<i>LagunAGAZ ikusi xuat/xonat</i>	<i>Ze laguneGAZ ikusiko dok/n?</i>
<i>Hogei urte betetiAGAZ batera ezkondu zan</i>	<i>Zenbat urteGAZ ezkondu zan? Hogei urteGAZ.</i>
<i>SegiAGAZ ebagi dot sail dana</i>	<i>Hiru segaGAZ ebagi dot sail dana</i>
<i>Patxiren aizkoriAGAZ bota dot arbola</i>	<i>Ze aizkoraGAZ bota dok/n arbola?</i>
<i>Ameriketatik diruAGAZ etorri zuan/zunan</i>	<i>Orain ondo bizi dok/n nehikua diruGAZ</i>
<i>GizurrAGAZ ez haiz urrin fango</i>	<i>Hainbeste gizurreGAZ higuindduta nauk/n</i>
<i>Hemengo lurrAGAZ teillak egin leike</i>	<i>Nora hoia hainbeste lurreGAZ?</i>
<i>Eguraldi beruAGAZ hala moduz ibilli giñan han</i>	<i>Lau-bost beroGAZ larriketan gara ta!</i>
<i>Zeiñen kotxiAGAZ fan da?</i>	<i>Zenbat kotxeGAZ fan dira?</i>
<i>Aurten kanaleko bueltia egitteko goguAGAZ nago</i>	<i>Nik, berriz, eztakot bape gogoRIK buelta hori egitteko</i>

Oharra: irakurri bokal arteko 'g' letria agoskau barik, hori mutua da eta.

**Izen propixuak mugabagian:** PatxiGAZ, AnderreGAZ, MireneGAZ, AlbertoGAZ, JuleneGAZ...

#### Erakusliak

*Honegaz, horregaz, haregaz, honeigaz, horreigaz, hareigaz* (pluralak gutxiago ebaliak gaur egunian)  
*Honetxegaz, horretxegaz, haretxegaz, honeitxegaz, horreitxegaz, hareitxegaz* (-XE /-TXE inddartzailiagaz)

#### Izenordain pertsonalak

*Neregaz, hiregaz, haregaz, guregaz, zuregaz, zuegaz, hareigaz*  
*Neugaz, heugaz, beragaz, geugaz, zeugaz, zeuegaz, euragaz* (forma inddartuak)

*Nerekin, hirekin, harekin, gurekin, zurekin, zuekin, hareikin*  
*Neurekin, heurekin, berarekin, geurekin, zeurekin, zeuekin, eurakin* (forma inddartuak)

**Izenordain alkarkarixak:** alkarregaz / alkarrekin